



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko urriaren 3a

111. ZK.

### A U R K I B I D E A

E S A I L A:

#### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-25/ITP-00028. Interpelazioa, zaintzen arloko politika orokorrari buruzkoa. Oihana Gallo San Román andreak egin du (3. or.).
- 11-25/ITP-00029. Interpelazioa, funtzio publikoaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Ramón Alzorritz Goñi jaunak egin du (3. or.).
- 11-25/ITP-00030. Interpelazioa, genero-indarkeriaren aurkako politika orokorrari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (4. or.).
- 11-25/MOC-00122. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernua premia dezan urgentziaz izapidetzera Nafarroan legez kanpo dauden etorkin guztien berehalako kanporatzea. Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztu du (5. or.).
- 11-25/MOC-00123. Mozioa, zeinaren bidez arbuiatu egiten bait 2027aren osteko urte anitzeko finantza-esparruaren baitan Europako Batzordeak planteatutako Nekazaritza Politika Erkide berriaren proposamena, eta Espainiako Gobernua premiatzen baita oraingoarekiko inolako murrizketarik ekarriko ez duen aurrekontua defenda dezan Bruselan, autonomia-erkidegoekin eta nekazaritza-sektorearekin batera. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (7. or.).
- 11-25/MOC-00124. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2026ko martxoan baino lehen aurkez dezan, bai eta urtero aurkeztu ere, klimaren jarraipenari buruzko txosten bat. Félix Zapatero Soria jaunak aurkeztu du (9. or.).
- 11-25/MOC-00126. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita “enpleguaren eta desgaitasunaren arloko estrategia” taxutu dezan. María Isabel García Malo andreak aurkeztu du (10. or.).
- 11-25/MOC-00130. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita xenofobia instituzionala desagerraraz dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (11. or.).
- 11-25/MOC-00131. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Itoizko zentral hidroelektrikoa abio beltzeko azpiegitura estrategiko bihurtzeko aukera aztertu eta sustatu dezan CANASA SA eta Red Eléctrica Española (REE) sozietateekin batera. Ana María Elizalde Urmeneta andreak aurkeztu du (12. or.).
- 11-25/MOC-00132. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita berehala kontratatu dezan kanpo-auditoretza bat, independentea eta gardena, Cometa sistemaren kontratuaren, funtzionamenduaren eta fidagarritasunaren gainekoa, barne hartuko dituen esleipen- nahiz ezarpen-fasea eta oraingo zerbitzu-emeatea. María Isabel García Malo andreak aurkeztu du (13. or.).

- 11-25/MOC-00049. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Atzerritarren Nafarroako Bulegoa sendotu dezan. Mozioa erretiratzea (14. or.).
- 11-25/MOC-00104. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Europar Batasunari eska diezaion Nekazaritzako Politika Erkide soilagoa eta landa-eremurako baliagarriagoa egin dezan, behar adina baliabide eta egitura propioa izanen dituen. Mozioa erretiratzea (14. or.).
- 11-25/MOC-00105. Erabakia, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita konponbide bat eman diezaion Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan Gorputz Hezkuntza eta Musika irakasgaiak atzerriko hizkuntzan ematen dituzten irakasleei. Hezkuntza Batzordeak onetsi du (15. or.).
- 11-25/MOC-00106. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Memoriaren Institutua premiatzen baita zuzendu eta eguneratu ditzan, Berriozarko, Berriobeitiko eta Antsoaingo udalen eta Txinparta-Fuerte San Cristóbal, Memoria Kolektiboaren Sarearen eskutik, herri horietako hilerrietan, Ezkabako Gotorlekuan, Iheslarien Monolitoan eta Botilen Hilerrian dauden paneletako informazioak. Memoria eta Bizikidetzaz, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordeak onetsi du (15. or.).
- 11-25/DEC-00035. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak irmoki gaitzesten baititu osasun-langileen, azpiegitura medikoen eta osasun-zerbitzuen aurkako erasoak, krisi eta gatazka armatuko testuinguruetan eginikoak. Eledunen Batzarrak onetsi du (16. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- 11-25/POR-00331. Galdera, eremu ez-euskaldunean euskara irakaskuntzan sartzeari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (17. or.).
- 11-25/POR-00251. Galdera, Iturrama, Doña Mayor eta Arroizko La Balsa ikastetxeetan bi urteko gelak ezartzaren gaineko asebetetze-txostenari buruzkoa. Galdera erretiratzea (17. or.).
- 11-25/PES-00336. Galdera, Valle del Queiles BHIari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (18. or.).
- 11-25/PES-00337. Galdera, Barne Eraberritze eta Babeserako Plan Bereziari buruzko araudi orokorraren 103. artikuluari buruzkoa (A11 esparrua, Sarasate pasealekua). Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (18. or.).
- 11-25/PES-00338. Galdera, Bidean enpresari eginiko ordainketei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (20. or.).
- 11-25/PES-00339. Galdera, Bidean enpresaren jarduera abiaraztean izandako gorabeheri buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (20. or.).
- 11-25/PES-00340. Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan Erriberako pazientei neuroestimulatuak emateari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (21. or.).
- 11-25/PES-00341. Galdera, Belateko tuneletako obrei buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (22. or.).
- 11-25/PES-00342. Galdera, BSHren enpresa hornitzailei buruzkoa. Ana María Elizalde Urmeneta andreak egin du (22. or.).
- 11-25/PES-00343. Galdera, Iturrama, Doña Mayor eta Arroizko La Balsa ikastetxeetan bi urteko gelak ezartzaren gaineko asebetetze-txostenari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (23. or.).
- 11-25/PES-00344. Galdera, iruzur fiskalaren aurkako borrokan 2023an azaleratu diren zorren egiazko diru-bilketari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (23. or.).
- 11-25/PES-00345. Galdera, gradu amaierako lanak eta tesiak euskaraz egitea bultzatzeko neurriei buruzkoa. Oihana Gallo San Román andreak egin du (24. or.).
- 11-25/PES-00346. Galdera, Nasuvinsaren Alokairu-poltsa programari atxikitako etxebizitzaren errekurrentzia-indizeari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (25. or.).
- 11-25/PES-00347. Galdera, Etxebizitzaren Nafarroako Behatokiari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (25. or.).
- Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 100/2025 ebazpena, 2025eko irailaren 29koa, zeinaren bidez 11-25/PES-00302 espediente-zenbakia duen idatzizko galdera Nafarroako Gobernuari helarazten baitzaio idatziz erantzun dezan (26. or.).
- Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 102/2025 ebazpena, 2025eko irailaren 30koa, zeinaren bidez 11-25/PES-00298 espediente-zenbakia duen idatzizko galdera Nafarroako Gobernuari helarazten baitzaio idatziz erantzun dezan (27. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **11-25/ITP-00028. Interpelazioa, zaintzen arloko politika orokorrari buruzkoa**

*OIHANA GALLO SAN ROMÁN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihana Gallo San Román andreak egindako interpelazioa, zaintzen arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Oihana Gallo San Román andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zaintza-sistema lehentasunezkoa eta estrategikoa da bizitzari eusteko eta pertsonak mantentzeko. Hori da Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legeak ezartzen duena, bizitzaren garapenerako lurralde jasangarri baterantz aurrera egitea bilatzen baitu.

Hori dela eta, zaintzen arloko politika orokorrari buruzko interpelazioa aurkezten diogu Lehendakari-tzako eta Berdintasuneko kontseilariari.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Oihana Gallo San Roman

---

## **11-25/ITP-00029. Interpelazioa, funtzio publikoaren arloko politika orokorrari buruzkoa**

*RAMÓN ALZORRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzorriz Goñi jaunak egindako interpelazioa, funtzio publikoaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, funtzio publikoaren arloko politika orokorrari buruzko interpelazioa aurkezten dio Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Kontuan hartuta laster negoziatuko dela funtzio publikoaren estatutu berria, zerbitzu publikoen arloan erronka berriak daudela, herritarrek eska-

riak dauzkatela eta beharrezkoa dela zerbitzu horiek indartzea ongizate-estatua eta herritarren irispide-berdintasuna bermatzeko, funtzio publikoaren arloko politika orokorrari buruzko interpelazio hau aurkezten dugu.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

---

## **11-25/ITP-00030. Interpelazioa, genero-indarkeriaren aurkako politika orokorrari buruzkoa**

*ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak egindako interpelazioa, genero-indarkeriaren aurkako politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, genero-indarkeriak Nafarroan duen intzidentzia ikusita, genero-indarkerien aurkako borrokaren arloko politika orokorrari buruzko interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari.

Nafarroan, 2025eko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

## 11-25/MOC-00122. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Espainiako Gobernua premia dezan urgentziaz izapidetzera Nafarroan legez kanpo dauden etorkin guztien berehalako kanporatzea

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Espainiako Gobernua premia dezan urgentziaz izapidetzera Nafarroan legez kanpo dauden etorkin guztien berehalako kanporatzea.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### MOZIOAREN TESTUA

Talde Mistoko foru parlamentari eta VOXeko kide Emilio Jiménez Románek honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

Zioen azalpena

Legez kanpoko immigrazio masiboa, gairiditu egiten gaituena, oso arazo larria da espainiarrentzat oro har eta nafarrentzat bereziki. Azken hila-beteotan, gero eta jende gehiago iristen da saldo-ka gure herrialdeko kostaldera, mafiek salgaiak balira bezala edo auzokide desleialek (Marokok, esaterako) nazioarteko politikarako tresna balira bezala erabiltzen dituztenak. Aurten, guztira, ia 20.000 etorkin iritsi dira Espainiara legez kanpo.

Pedro Sánchez boterera iritsi zenetik, legez kanpoko 348.167 etorkin baino gehiago sartu dira Espainian. Soilik 2024an, 64.048 iritsi ziren modu irregularrean Espainiara, 2023an baino % 10 gehiago. Datu horiek berretsi besterik ez dute egiten VOXek dioena: batzuek legez kanpoko etorkinak lehorreratzeko eta banatzeko plataforma bihurtu nahi dituzte Kanariar Uharteak eta Espainiako beste eremu batzuk. Horrek pobrezia, segurtasunik eza eta aurri-egoera baino ez die ekarriko espainiar guztiei, zeinak erakunde guztiak abandonatzen eta pre-

karietatera kondenatzen ari baitira, milioika euroekin ureztatu bidenabar legez kanpoko etorkinen harrera masiboarekin aberasten diren mafiak eta entitateak, denboran eta espazioan gainezka egindako legez kanpoko immigrazio-prozesuak bul-tzatuz. Espainia legez kanpoko immigrazioa Europan sartzeko bide nagusia bihurtu da, are Italia edo Greziaren gainetik, eta hori bereziki larria da Kanariar Uharteetan eta Andaluzian, haien kokapen geografikoa dela-eta. Hain zuzen ere, Italia bezalako nazioek legez kanpoko immigrazioaren etorrera % 60 murriztea lortu dute azken urteotan, Georgia Meloni lehen ministroaren gobernuak amaitutzat eman baitu ate irekiko politika.

Legez kanpoko immigrazio masiboko prozesuak ez dira arazo politiko, ekonomiko eta sozial bat soilik Espainiarrentzat eta Europarentzat, giza tragediak ere bai baitira. Pertsona horiek –mafien presoak– arriskuan jartzen dituzte beren bizitzak itsasaldi arriskutsuetan. 2024an soilik, 10.457 etorkin hil ziren gure mugak itsasoz gurutzatzen saiatzean, 2023an baino ia % 60 gehiago; horietatik 1.538 adingabeak ziren. Ulertezina da hedabide eta alderdi politiko gehienak, onkeria-itxuraz eta GKE askoren laguntzaz, pertsona babesgabeen trafikoaren mafien konplize bihurtu izana. Pertsona horiek, beren gain hartu ezin dituzten diru-kopuruak ordainduta, beren jatorrizko herrialdeetan engainatzen dituzte, eta, kasu gehiegitan, itsasoan zorigaitzoko heriotza batera arrastatzen dituzte, edo, zortea izanez gero, bere herritarrentzat ere –eta, beraz, haientzat ere ez– etorkizunerako itxaropenik ez duen herrialde batera.

Gauzak horrela, eztabaida publikoan adierazi beharra dago ongizate-estatuarekin bateraezina dela denboran eta espazioan gainezka egindako legez kanpoko immigrazio masiboaren egungo inportazio-eredua. Horren ondorioak gure inguruko herrialdeetan aztertu dira jada, eta gure zerbitzu publikoetan nabaritzen ari gara: legez kanpoko immigrazio masiboak, "aberastasun" izatetik urrun, kostu izugarria dakarkie diru-kutxa publiko-  
ei, batez ere gero eta gizarte-larrialdi handiagoko testuinguru batean, batez ere Andaluzian.

Komunikabideek berek errealitate eztabaidaezin baten fede ematen dute: legez kanpoko immigrazio masiboa da Espainiak biztanleria ez galtzeko arrazoi bakarra.

Datu horiek frogatzen dute legez kanpoko immigrazioa masiboa ez dela ezertarako konponbidea, baizik eta gure ongizate-estatu dinamitatu berri duen arazoa: osasuna presionatzen du, hezkuntza gainezkatzen du, etxebizitza garestitzen du eta auzoetan segurtasunik eza areagotzen du.

Baina espainiarren mesedetan euste- edo zuzenketa-neurriak hartu beharrean, administrazio publikoek laguntza-sistema bat mantentzen dute, ez dituen bereizten beren lanaren izerdiarekin diru-kutxa publikoetan lagundu dutenak eta legez kontra sartzen eta mantentzen direnak, haien ekarpen garbia negatiboa baita eta izanen baita termino ekonomikoetan, Ongizatearen Estatu bideraezina eginez: Estatuak espainiarrentzat funtsezkoak diren zerbitzu publikoei eusteko eta baliabide guztiak lehenik eta behin espainiarren benetako premien zerbitzura jartzeko behar-beharrezkoa dena bildu behar du soilik.

Azken batean, demokrazian zilegi da lehentasunak eta helburuak ezartzea gizarte-politikan, eta beharrezkoa da administrazio publiko guztietan, horrela bakarrik bermatzen baita zerbitzu publikoak behar bezala emanen direla. Estatuaren laguntza eta pizgarriei dagokienez, lehentasun nazionalaren irizpidea funtsezkoa da: laguntza publikoak, lehenik eta behin, nazionaleri zuzendu behar zaizkie; gure lurraldean jaio, bizi, lan egin eta kotizatzen dutenei. Ez da kontu ekonomiko soil bat, baizik eta justizia, gizarte-kohesio eta proiektu nazionalakoa. Dirulaguntza eta laguntza publikoak, ongizate-estatu osoaz gain, Andaluzian eta Espainian jaio, bizi, lan egin eta sostengatzen dituztenengana bideratu behar dira lehenik eta behin.

Horregatik, Espainiako eta Nafarroako gobernuak berariaz eta berehala txertatu behar dute lehentasun nazionalaren irizpidea zerbitzu publikoak ematean, printzipio orientatzaile eta justizia sozialeko printzipio gisa. Nazionalak babestuz eta gizarte-ongizatea hobetzeko baliabideak lehenik eta behin behar legitimoa dutenek, espainiarrek, erabil ditzaten bermatuz.

Horregatik guztiagatik aurkezten dugu hurrengo erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Espainiako Gobernuak premia dezan urgentziaz izapidetzera Nafarroan legez kanpo dauden etorkin guztien kanporatzea, bai eta delitu larriak egin dituzten legezko etorkin guztiak, delitu arina egitea beren bizimodua bihurtu dutenak edo gure gizartearen oinarritzko printzipioen aurkako ideologiak edo erlijioak hedatzen dituztenak ere, eta, bereziki, emakumea eta haren erabateko berdintasuna laidozten dutenak ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Espainiako Gobernuak premia dezan nazionalitate espainiarra galtzera eta lurralde nazionaletik botatzera ere zigortu ditzan kondenatuak izan diren adingabe eta adindun atzerritarrak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Espainiako Gobernuak premia dezan urgentziaz izapidetu dezan bidaidetik gabeko adingabe atzerritarrak beren jatorrizko herrialde- etara aberriratzea beren gurasoekin, senideekin edo ingurune intimoarekin.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du aurka egin diezaion Espainian legez kanpo sartu den edozein etorkin Nafarroan birkokatzeari edo hartzeari.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du gure kaleetan segurtasunik eza sortzen duten bidaidetik gabeko adingabeen zentroak itxi ditzan, denboran lehentasuna emanez gatazka gehien sortzen dutenei herritarrei kalte gehien eragiten dieten zentroei. Zentro horiek ixtea lortzen den bitartean, zentro horietako langileen segurtasuna, behar adineko espazioa eta inguruko bizilagunen segurtasuna bermatzeko jarri beharreko neurriak eta azpiegiturak jarriko dira.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du gardentasuna berma dezan Nafarroako legez kanpoko immigrazioari dagokienez, eta xehetasunez informa dezan 2019ko ekitaldiaz geroztik Nafarroako Gobernuak tutoretzapean dituen adingabeen kopuruari buruz, zer zentrotan dauden harreran eta zer kostu dakarkioten Administrazioari, adina, sexua eta nazionalitatea zehaztuta. Era berean, Nafarroako Gobernuak premiatzen du argitara dezan legez kanpoko etorkinek Administrazio Publikotik, guztion dirutik, jasotako laguntza guztien zenbatekoa.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du behar diren lege-aldaketak bultzatzen esparru erregionaleko legeetan, gizarte-babeseko zerbitzu eta prestazio publikoak eskuratzeko lehentasun nazionalaren printzipioa ezartzeko, bai eta behar diren erregelamendu- arauak alda ditzan ere.

8. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du lehentasun nazionalaren printzipioa ezar dezan Nafarroako Gobernuari ez beste inori dagozkion partidak dituzten dirulaguntzen oinarri arautzaileetan, arreta lehenik espainiarrei ematen zaiela bermatzeko eta pizgarrietan edo laguntzetan lehentasuna emateko besteak beste:

- Etxebizitzaren arloan: alokairurako laguntzak, ohiko lehen etxebizitza eskuratzeko abala edo babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko abala.

- Hezkuntzaren arloan: haur-hezkuntzaren doakotasuna (0-3 urte), eskola-jantokirako laguntzak, eskola-garraiorako laguntzak edo ikasketa-bekak.

- Lan-arloan, gizarteratzeko eta laneratzeko programak, autonomoen kuota, enplegurako prestakuntza-planak edo lanbide-heziketa.

- Justiziaren arloan, doako laguntza juridikoa.

9. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako eta Espainiako iden-

titate kulturala eta tradizio berekiak babestu ditzan, gure lurraldeko askatasun, ohitura eta printzipio demokratiko eta sozialen aurkako praktika kulturalik ezartzen ez dela bermatuz, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bereziki babestuz.

10. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du laguntza ekonomikoko plan espezifiko bat egin dezan, migrazio-presioak gehien eragindako Nafarroako udalerriek segurtasuna indartu ahal izan dezaten.

Iruñean, 2025eko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

## **11-25/MOC-00123. Mozioa, zeinaren bidez arbuiatu egiten bait 2027aren osteko urte anitzeko finantza-esparruaren baitan Europako Batzordeak planteatutako Nekazaritza Politika Erkide berriaren proposamena, eta Espainiako Gobernua premiatzen baita oraingoarekiko inolako murrizketarik ekarriko ez duen aurrekontua defenda dezan Bruselan, autonomia-erkidegoekin eta nekazaritza-sektorearekin batera**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez arbuiatu egiten bait 2027aren osteko urte anitzeko finantza-esparruaren baitan Europako Batzordeak planteatutako Nekazaritza Politika Erkide berriaren proposamena, eta Espainiako Gobernua premiatzen baita oraingoarekiko inolako murrizketarik ekarriko ez duen aurrekontua defenda dezan Bruselan, autonomia-erkidegoekin eta nekazaritza-sektorearekin batera.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Europako nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorea, zeinean 30 milioi pertsona baino gehiagok lan egiten baitute eta 400 milioi herritarri elikagai seguruak eta kalitatezkoak bermatzen baitizkie, une erabakigarrian dago. Europako Batzordeak aurkeztu dituen Nekazaritza Politika Erkide berriaren eta Urte Anitzeko Finantza Esparruaren (UAFE) proposamenak egungo aurrekontuarekiko % 20tik gorako murrizketa historikoa dakar; hau da, 9.600 milioi euroko galera zenbatetsia ekarriko luke Espainiarentzat.

Aurrekaririk gabeko atzerakada da, Nekazaritza Politika Erkidearen bi zutabeak –zuzeneko ordainketak eta landa-garapeneko politikak– dinamitatezko mehatxua. Haren ordez "funts bakarra herrial-

de bakoitzeko" jartzeak atea irekitzen dio nekazaritza-politikaren birnazionalizazioari, elkartasun europarraren printzipioa hautsiz, merkatu bakarra ahulduz eta milaka familia-ustiategi bertan behera uztera kondenatuz hartara.

Nafarroak, Espainiako nekazaritza-sektore osoarekin batera, planteamendu horren aurka dagoela erabat adierazi du jada. Gure foru-erkidegoan 2025eko ekainean lortutako akordio sektorialak honako hau ezartzen du argi eta garbi:

- Nekazaritza eta abeltzaintza Europar Batasunaren elikadura-subiranotasunaren sektore estrategikotzat eta zutabetzat hartu behar dira.

- Ezin da aurrekontu-murrizketarik egon NPE berrian; aitzitik, aurrekontu anbiziotsu eta egonkor bat behar da, jasangarritasunaren, lehiakortasunaren eta belaunaldi-erreleboaren erronkekiko koherentea.

- NPEk bi zutabeko egiturari eutsi behar dio, aurrekontu independente eta espezifikoarekin, bere helburuak lausotuko dituzten funts bakarretako bat-egiteak saihestuz.

- Ezinbestekoa da ereduak familia-ustiategi profesionalak positiboki diskriminatzea, belaunaldi-erreleboa erraztea, izapideak sinplifikatzea eta hirugarren herrialdeetako inportazioen aurrean lehia-baldintza justuak bermatzea ispilu-klausulen bidez.

Bruselaren egungo proposamenak arriskuan jartzen ditu, gure ustiategien bideragarritasuna ez ezik, elikagaien segurtasuna, lurralde-kohesioa eta landa-ingurunearen biziraupena ere. NPE dinamitatzea Europa dinamitatzea da, zeren eta eraso egiten baitio integrazio europarraren proiektu arrakastatsu eta sortzaileenetako bati.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki-proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du Europako Batzordeak 2027tik aurrerako urte anitzeko finantza-esparruaren esparruan planteatutako NPE berriaren proposamena, aurrekontu-murrizketa onartezina dakarrelako eta nekazaritza-sektoreari eta landa-inguruneari kalte larria eragiten dielako.

2. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du etorkizuneko NPEk bi zutabeko bere egiturari eustea (zuzeneko ordainketak eta landa-garapena), aurrekontu nahikoa, egonkorra eta espezifikoa duela, elikadura-subiranotasuna, sektorearen lehiakortasuna eta EBko lurralde-kohesioa bermatzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiatzen du Bruselan, autonomia-erkidegoekin eta nekazaritza-sektorearekin batera, aurrekontu anbiziotsu bat defenda dezan, egungoarekin alderatuta inolako murrizketarik ekarriko ez duena, eta familia-ustiategi profesionalari, gazteei eta nekazaritza berde eta birsortzailerako trantsizioari ematen zaien laguntza indartuko duena.

4. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du Europar Batasunaren lehentasun berrietara (defentsa, industria, trantsizio energetikoa) bideratutako funts gehigarriak nekazaritza-aurrekontuaren kontura finantzatu ez daitezen, aurrekontu hori blindatu egin behar baita.

5. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du hirugarren herrialdeekin egindako merkataritza-akordioetan ispilu-klausulak sar daitezen, inportatutako produktuek Europako produktuen gizarte-, osasun- eta ingurumen-eskakizun berberak betetzen dituztela bermatzeko.

6. Akordio hau Europako Parlamentuari, Europako Batzordeari, Espainiako Gobernuari eta Europako erakunde eskudunei helaraziko zaie.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Eleduna: Ainhoa Unzu Gárate

## 11-25/MOC-00124. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita 2026ko martxoa baino lehen aurkez dezan, bai eta urtero aurkeztu ere, klimaren jarraipenari buruzko txosten bat

*FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2026ko martxoa baino lehen aurkez dezan, bai eta urtero aurkeztu ere, klimaren jarraipenari buruzko txosten bat.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, Nafarroak emergentzia klimatikoa dela eta egiaz konprometitzeari buruzko honako mozio hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatzeko:

Zioak

Nafarroak, 2022tik, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko 4/2022 Foru Legea dauka, 2030erako eta 2050erako asmo handiko helburuak ezartzen dituena. Hiru urte geroago, nafarrek eskatzen dute konpromiso horiek emaitza nabariak, adierazle argiak, baliabide nahikoak eta ekintza publiko koordinatua izatea.

Spainiaiko Senatuak gehiengo handiz onartu du emergentzia klimatikoa dela "datozen hamarkadetan gizateriak aurre egin eta zuzendu behar duen mehatxurik handiena". Adierazpen horrek erronkaren araberako erantzun instituzionala exijitzen du, administrazio guztiak inplikaturiko dituen Estatu Itun baten inguruan artikulatua.

Testuinguru horretan, ezinbestekoa da klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko

politikak indartzea, arreta berezia jarriz baso-suteen prebentzioari, lurraldearen kudeaketa jasangarriari eta larrialdi-planen hobekuntzari, 2025ean eta aurreko urteetan bizi izandako krisialdiak saihesteko.

Erabakiak

1. Nafarroako Gobernua premiatzea 2026ko martxoa baino lehen eta urtero aurkez dezan klimaren jarraipenaren gaineko txosten bat, honako hauen jasoko dituena:

- 4/2022 Foru Legearen betetze maila, arintze-eta egokitze-adierazleekin.

- Berotegi-efektuko gasen emisioen eta sektore nagusien bilakaera (energia, garraioa, lurzorua erabilera, hondakinak, nekazaritza).

- Nahitaezko plan sektorialen eta egokitzapen-planen egoera eguneratua, gauzatutako aurrekontu-baliabideak barne.

2. Nafarroako Gobernua premiatzea ibilbide-orri bat presta dezan, 2030erako eta 2050erako emisioak murrizteko helburuak lortzeko behar diren jarduketan kronograma eguneratua izanen duena, eta ekintza bakoitzerako zehaztutako dituen zer erakunde arduratuko den, hasiera- eta amaiera-datak eta esleitutako aurrekontu-zuzkidura.

3. Nafarroako Gobernua premiatzea Klima Aldaketaren Gizarte Kontseilua eta Nafarroako Trantsizio Energetikoaren Agentzia (ATENA) egiaz aktibatzen direla berma dezan, plan operatibo baten bidez. Plan horretan zehaztutako dira antolaketa-egitura, esleitutako langileak, aurrekontu erabilgarria eta funtsezko erabakien egutegia (izendapenak, erregelamenduak, parlamentu-kontrolerako mekanismoak).

4. Nafarroako Gobernua premiatzea 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sar dezan Klima-ekintzako eta Energia-trantsizioko Funts baten sorrera, izaera finalistarekin, arintze- eta egokitzapen-neurrietara soilik bideratuta. Funts horrek Espainiaiko Gobernuarekiko koordinazioa erraztu beharko du, eta estatuko eta Europako funtsak erakarriko direla bermatu, Emergentzia Klimatikoari aurre egiteko Estatu Itunaren esparruan.

Iruñean, 2025eko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

## **11-25/MOC-00126. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita “enpleguaren eta desgaitasunaren arloko estrategia” taxutu dezan**

*MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen bait “enpleguaren eta desgaitasunaren arloko estrategia” taxutu dezan.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Lanerako eskubidea, legezko bermea ez ezik, oinarritzko eskubidea ere bada. Nazio Batuen arabera, eskubide hori funtsezkoa da beste giza eskubide batzuk baliatu ahal izateko eta ezin da giza duintasunetik bereizi.

Espainiako Konstituzioak 35. artikuluan ezartzen duenez, espainiar guztiok dugu lan egiteko betebeharrak eta lanerako eskubidea. Hala ere, eskubide hori ez dute guztiok baldintza beretan baliatzen.

Desgaitasuna duten pertsonen askoz gehiago kostatzen zaie lan bat lortzea, lana mantentzea eta hobetzeko aukerak izatea. Egoera horrek pobrezia eta gizarte-bazterkeria pairatzeko arrisku handiagoan jartzen ditu pertsona horiek. Eta hala aitortzen du Enpleguari buruzko otsailaren 28ko 3/2023 Legeak, laneratzeko zailtasun bereziak dituen kolektibo gisa identifikatzen baititu.

Nafarroan desgaitasuna duten pertsona askok ezin izan dute lehen urratsa egin lan-merkatuan sartzeko, eta sartzeko direnak zailtasun gehiago dituzte kontratatatuak izateko, kotizatze eta enpleguari eusteko. Datuek hori diote: desgaitasunik gabeko pertsonen baino jarduera gutxiago, afiliazio gutxiago, kontratu gutxiago eta iraupen luze-ko langabezia gehiago.

Nafarroan desgaitasuna duten milaka pertsonak lan egin nahi dute eta ezin dute lan egin. Ez gogo faltagatik, baizik eta benetako aukera faltagatik. Aurrekontutik aurrekontura ezin dugu neurri berekin jarraitu eta emaitza desberdinak espero.

Aurrera egin behar dugu, eta, horretarako, errealitate hori egunero bizi dutenei aditu behar diegu. Desgaitasuna duten pertsonen zeresan handia dute enpleguari dagokionez. Eta ahotsa ematen badiegu eta erdigunean jartzen baditugu soilik hartzen ahalko ditugu benetan lagunduko dieten erabakiak.

Erabaki-proposamena:

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabakitzen du:

Nafarroako Gobernua premiatzea Enpleguari eta Desgaitasunari buruzko Estrategia taxutu dezan. Estrategia horrek helburu argiak eta neurgarriak izan behar ditu, eta desgaitasuna duten pertsonekin zuzenean eraikita egon behar du.

Iruñean, 2025eko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## 11-25/MOC-00130. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita xenofobia instituzionala desagerraraz dezan

### NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita xenofobia instituzionala desagerraraz dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroako Gobernua xenofobia instituzionala desagerraraz dezan premia-tzen duen honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Organismo ofizialek, legeek, araudiek eta administrazio-jardunbideek eragindako diskriminazio mota bat da xenofobia instituzionala, eta atzeritar-  
rak edo jatorri desberdineko pertsonak baztertzea eragiten du, eskubide eta zerbitzu publikoak berdintasunez baliatzean.

Fenomeno hori hainbat eremutan gertatzen da: osasun unibertsala baliatzeko zailtasunak, udal-, autonomia- nahiz estatu-mailako kudeaketak egiteko administrazio-oztopoak, segurtasun-  
indarrek arraza-profilak erabiltzea, edo oinarritzko eskubideak mugatzen dituzten migrazio-murrizketak.

Diskriminazio hori herritartasun- edo nazionalitate-irizpideen arabera normalizatzen ari da, eta eragin negatiboa du oinarritzko eskubideetan, hala nola osasunean, hezkuntzan, etxebizitzan edo enpleguan. Azken urteotan zehar, nazioarteko eta nazio-  
bait estaturik ez diren instituzio ohartarazten ari dira zenbait estaturik ez diren instituzioak atzeritarra osasun-arreta

jasotzetik kanpo uzteko joera dutela, praktika horiek ondorio sozial eta gizatiar larriak dituztela.

Espanian, diskriminazio-egoerak dokumentatu dira atzeritartasun-bulegoetan, atzerapenak nazionalitateetan, erroldatzeko oztopoak edo etxebizitza eskuratzeko desberdintasunak. Europan, gobernuak kanpoko erakundeek eta Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentziak salatu dute gogortu egin direla migrazio-politikak eta muga-kontrolako politikak, xenofobia instituzionalaren adibide argi gisa.

Nafarroan ere, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Arreta Zerbitzuaren bidez, 2024an 267 kasu erregistratu ziren guztira, arrazakeriak eta xenofobiak eragindako ustezko gorroto-deltuei eta gertakari diskriminatzaileei buruzkoak, eta 3.567 esku-hartze egin ziren.

Arrazakeriaren, xenofobiaren eta beste intolerantzia batzuen aurkako erakunde arteko akordioa (Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Espainiako Behatokiak koordinatua) eta, maila autonomikoan, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Arreta Zerbitzua bezalako mekanismoak dauden arren, ezinbestekoa da politika publikoak eta erakundeen konpromisoa indartzea, tratu- eta eskubide-berdintasuna bermatzeko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki-proposamen hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du xenofobia instituzionala dagoela, eta instituzioetatik egiten den edozein diskriminazio mota errefusatzeko du.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako administrazio publikoak premia-tzen ditu migratzaileek eta jatorri desberdinekoek oinarritzko eskubideak baliatzea zailtzen duten araudiak eta administrazio-prozedurak berrikus eta egokitu ditzan.

3. Nafarroako Parlamentuak Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua premia-tzen du diskriminazio instituzionalaren aurkako salaketa- eta babes-mekanismoak berrikus eta indartu ditzan, biktimentzako kanal irisgarri eta eraginkorrak ziurtatuz, arrazakeria instituzionaleko praktikak identifikatu, zehatu eta amaiazteko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio tratu-berdintasunari, arrazake-

riari eta xenofobiari buruzko sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainak bultzatzen dituzan administrazio publikoan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin lankidetzan.

5. Nafarroako Parlamentuak gizarte plural, inklusibo eta demokratiko batekin duen konpromisoa berresten du, zeinean aniztasuna Nafarroarentzat balio eta aberastasun gisa aitortuko baita.

Iruñean, 2025eko irailaren 25ean

Eleduna: Ainhoa Unzu Gárate

## **11-25/MOC-00131. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita Itoizko zentral hidroelektrikoa abio beltzeko azpiegitura estrategiko bihurtzeko aukera aztertu eta sustatu dezan CANASA SA eta Red Eléctrica Española (REE) sozietateekin batera**

*ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Itoizko zentral hidroelektrikoa abio beltzeko azpiegitura estrategiko bihurtzeko aukera aztertu eta sustatu dezan CANASA SA eta Red Eléctrica Española (REE) sozietateekin batera.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitaleko Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Ana Elizalde Urmeneta andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitaleko Batzordean eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Apirilaren 28an Espainian izandako itzalaldiak agerian utzi du gure sistema elektrikoaren ahulezia.

Itzalaldiaren ondorengo arazo nagusietako bat izan zen sistema berriz abiaraztea, hasiera batean Marokotik eta Frantziatik hasi zena.

Nafarroak bost zentral hidroelektriko eta zenbait minizentral ditu. Red Eléctrica Españolak horietako bakar bat ere ez dauka black start puntu gisa katalogatuta, hau da, ez daukate abio-ahalmenik kanpo-sarerik ez badago; beraz, eremuko sistema egonkortu zenean soilik berrabiarazi ahal izan ziren.

Nafarroako bost zentral hidroelektrikoetatik, Itoiz-Irunberrikoa egokitu liteke, bere ezaugarri teknikoak direla-eta.

Nafarroak abio beltzeko zentral bat izateak ahalbidetuko luke, itzalaldi bat berriz gertatuko balitz, uharte energetiko bat eratzea, energiak nazio-mailan huts eginez gero ondorio negatiboak minimizatuz.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Itoizko zentral hidroelektrikoa abio beltzeko azpiegitura estrategiko bihurtzeko aukera aztertu eta sustatu dezan CANASA SA eta Red Eléctrica Española (REE) sozietateekin batera.

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentua arduratuko da mozio honen jarraipena egiteaz.

Iruñean, 2025eko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

## **11-25/MOC-00132. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuia premiatzen baita berehala kontratatu dezan kanpo-auditoretza bat, independentea eta gardena, Cometa sistemaren kontratuaren, funtzionamenduaren eta fidagarritasunaren gainekoa, barne hartuko dituen esleipen- nahiz ezarpen-fasea eta oraingo zerbitzu-ematea**

*MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuia premiatzen baita berehala kontratatu dezan kanpo-auditoretza bat, independentea eta gardena, Cometa sistemaren kontratuaren, funtzionamenduaren eta fidagarritasunaren gainekoa, barne hartuko dituen esleipen- nahiz ezarpen-fasea eta oraingo zerbitzu-ematea.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Lehendakaritza eta Berdintasuneko Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Emakumeen aurkako indarkeria, bere adierazpen guztietan —genero-indarkeria, sexu-indarkeria, prostituzioa eta sexu-esplotaziorako salerosketa—, desberdinkeria adierazpenik onartezinena da gurea bezalako gizarte demokratiko batean. Biktimen babesak eta haien duintasunaren defentsak erakunde guztien lehentasun negoziatzailea izan behar du.

COMETA izeneko kontrol-gailu telematikoen sistema genero-indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktimen diren emakumeen segurtasuna bermatzeko tresna nagusietako bat da, urruntze-neurri judizialak betetzen direla benetan zaintzea ahalbidetzen baitu.

Hala ere, 2023an zerbitzu-emailea aldatu ondoren, akats larriak hauteman dira datuen migrazioan eta gailuen funtzionamenduan; halatan, informazio historikoa galdu da, lokalizazio- eta estaldura-arazoak gertatu dira, eta zenbait kasutan erasotzaileek zailtasunik gabe kendu ahal izan zituzten eskumuturrekoak.

Fiskaltza espezializatuek, polizia-sindikatuak, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epailek eta genero-indarkerian espezializatutako abokatuak salatuta dutenez, gorabehera horiek behin-behineko largespenak, erasotzaileen absoluzioak eta biktimen babesgabetasun larria eragin dituzte. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Indarkeriaren Behatokiak berak ohartarazi zuen bere garaian arriskutsua zela kontratua eremu horretan esperientzia nahikorik ez zuten enpresei esleitzea. Gainera, Berdintasun Ministerioak krisialdi horren kudeaketa politikoa ez da inondik ere nahikoa izan. Arazoak minimizatzeko saiakera gertatu da, gertakari "puntualei" buruz hitz egin baita, nahiz eta arazoak, egiaz, hilabeteetan zehar luzatu diren eta milaka emakume arriskuan jarri dituzten.

Nafarroan, gaur egun, dozenaka pertsona daude kontrolatuta COMETA eskumuturrekoen bidez. Orain arte modu ofizialean jakinarazi ez bada ere gure erkidegoko biktimaren bat zuzenean kaltetu dela, kezka agerikoa da. Nafarroako agente judizial eta polizia-ek unean uneko akatsak eta muga teknikoak onartu dituzte sisteman, eta horrek indartu egiten du bermeak indartzeko eta babes-protokoloak ezartzeko beharra, edozein gorabeheraren aurrean berehala jardun ahal izateko.

Gertaeren larritasunak azalpen publikoak ematea, erantzukizunak argitzea eta, batez ere, COMETA sistemak segurtasun- eta eraginkortasun-estandar altuenekin funtzionatuko duela bermatzea eskatzen du.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak honako hau erabakitzen du:

Erabaki-proposamena:

Espainiako Gobernuari exijitzea COMETA sistemaren kontratuari, funtzionamenduari eta fidagarritasunari buruzko kanpoko auditoretza independente eta gardena berehala kontratatu dezan,

esleipen-fasea, ezarpen-fasea eta egungo zerbitzu-aldia barne.

1) COMETA sistemaren datuak kudeatzean, gainbegiratzean edo migratzean zabarkeriaz jokatu bada erantzukizunak argitzeko exijitzea, zerbitzuaren esleipenean eta funtzionamenduan ahalik eta gardentasun handiena bermatuz.

2) Nafarroako Gobernuari genero-indarkeriaren biktimak babesteko protokoloak indartu ditzan erreklamatzeko, ordezkur neurriak eta babes-neurriak ezarri sistema telematikoa gorabehera teknikoa gertatuz gero.

3) Berdintasun Ministerioa eta Barne Ministerioa premiatzea berehala eta zehatz-mehatz argi-

tara ditzaten Nafarroako Foru Komunitatean eragin zuzena izan duten sistemaren akatsei buruzko datu guztiak, honako hauek barne:

a. Zenbat biktimari eragin dion Nafarroan.

b. Zenbat prozedura judicial aldatu edo largetsi diren Nafarroan.

c. Hautemandako akatsen tipologia (kokapena, estaldura, gailuen manipulazioa, etab.).

d. Gorabeheren benetako iraupena eta aktibatutako erantzun-protokoloak.

Iruñean, 2025eko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **11-25/MOC-00049. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Atzerritarren Nafarroako Bulegoa sendotu dezan**

### *MOZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Cristina López Mañero andreak aurkeztutako mozioa erretiratu izana. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Atzerritarren Nafarroako Bulegoa sendotu dezan.

Mozioa 2025eko martxoaren 28ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/MOC-00104. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Europar Batasunari eska diezaion Nekazaritzako Politika Erkide soilagoa eta landa-eremurako baliagarriagoa egin dezan, behar adina baliabide eta egitura propioa izanen dituena**

### *MOZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztutako mozioa erretiratu izana. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen baita Europar Batasunari eska diezaion Nekazaritzako Politika Erkide soilagoa eta landa-

eremurako baliagarriagoa egin dezan, behar adina baliabide eta egitura propioa izanen dituena. Mozioa 2025eko ekainaren 20ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/MOC-00105. Erabakia, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita konponbide bat eman diezaien Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan Gorputz Hezkuntza eta Musika irakasgaiak atzerriko hizkuntzan ematen dituzten irakasleei**

### *HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak 2025eko irailaren 23an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita konponbide bat eman diezaien Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan Gorputz Hezkuntza eta Musika irakasgaiak atzerriko hizkuntzan ematen dituzten irakasleei. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua premiatzen du ezarri beharreko prozedurak ezar ditzan, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako hizkuntza-proiektuetan eta plantilletan gorputz hezkuntza eta musika irakasgaiak atzerriko hizkuntzan ematen dituzten irakasleek beren lanpostuak mantendu ahal izan ditzaten Nafarroako ikastetxe publikoetan 2025-2026 ikasturtean”.

Iruñean, 2025eko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/MOC-00106. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Memoriaren Institutua premiatzen baita zuzendu eta eguneratu ditzan, Berriozarko, Berriobeitiko eta Antsoaingo udalen eta Txinparta-Fuerte San Cristóbal, Memoria Kolektiboaren Sarearen eskutik, herri horietako hilerrietan, Ezkabako Gotorlekuan, Iheslarien Monolitoan eta Botilen Hilerrian dauden paneletako informazioak**

### *MEMORIA ETA BIZIKIDETZA, KANPO EKINTZA ETA EUSKARA BATZORDEAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Memoria eta Bizikidetza, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordeak 2025eko irailaren 24an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Memoriaren Institutua premiatzen baita zuzendu eta eguneratu ditzan, Berriozarko, Berriobeitiko eta Antsoaingo udalen eta Txinparta-Fuerte San Cristóbal, Memoria Kolektiboaren Sarearen eskutik, herri horietako hilerrietan, Ezkabako Gotorlekuan, Iheslarien Monolitoan eta Botilen Hilerrian dauden paneletako informazioak. Hona testua:

“1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Memoriaren Institutua premiatzen du zuzendu eta eguneratu ditzan, Berriozarko, Berriobeitiko eta Antsoaingo udalen eta Txinparta-Fuerte San Cristóbal Memoria Kolektiboaren Sarearen eskutik, bi toki horiei buruzko informazioak, herri horietako hilerrietako, Ezkabako Gotorlekuko, Ihes Egindakoen Monolitoko eta Botilen Hilerriko paneletan daudenak”.

2.- Aipatutako guztia Ezkabako gotorlekuari buruzko Protokolo Orokorrean jasotako konpromiso eta betebeharren barruan kokatu beharko da”.

Iruñean, 2025eko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/DEC-00035. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak irmoki gaitzesten baititu osasun-langileen, azpiegitura medikoen eta osasun-zerbitzuen aurkako erasoak, krisi eta gatazka armatuko testuinguruetan eginikoak**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak irmoki gaitzesten ditu osasun-langileen, azpiegitura medikoen eta osasun-zerbitzuen aurkako erasoak, krisi eta gatazka armatuko testuinguruetan eginikoak.

2. Nafarroako Parlamentuak dei egiten die Espainiako Gobernuari eta nazioarteko komunitateari osasun-zerbitzuen aurkako erasoari buruzko kontu-emate zorrotzagoa eska dezaten, ikerketa independenteak eta zigorgabetasunari aurre egiteko ekintza argiak sustatuz.

3. Nafarroako Parlamentuak nazioarteko monitorizazio-mekanismoen sorrera sustatzeko eskatzen du, gatazka-eremuetako osasun-langileen

eta azpiegitura medikoen babes eraginkorra bermatzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak diplomazia humanitarioa indartzeko deia egiten du, erabat inpartzialak diren jarduera humanitarioak terrorismoaren aurkako legerietatik kanpo utzita, laguntza medikoa oztoporik gabe eskuratzeko aukera bermatze aldera.

5. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du neurri zehatzak har ditzan NBEren 2286 Ebazpena ekintza argi eta eraginkor bihur dadin, gerra-eremuetan langile medikoen babesa eta laguntza humanitarioa bermatzeko”.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-25/POR-00331. Galdera, eremu ez-euskaldunean euskara irakaskuntzan sartzeari buruzkoa****ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, eremu ez-euskaldunean euskara irakaskuntzan sartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Nafarroako Gobernuari eskatzen dio galdera honi ahoz erantzun diezaion.

Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatzen duen 80/2019 Foru Dekretuko 2. artikulua arabera, Hezkuntzako kontseilariaren eskumena da hezkuntza-unitate berriak sortzeko eskaerei bidea ematea, eta horretarako beharrezkoak diren administrazio-espediten izapidetzea. Eta irailaren 20an amaitu zen Nafarroako Eskola Mapa aldatzeko eta euskarazko eredu berriak sor daitezen eskatzeko protokoloa.

Euskarari buruzko 18/1086 Foru Legearen arabera, eremu ez-euskaldunean euskara irakaskuntzan progresiboki sartuko da, egun dauden ikastetxe publikoetan euskarazko lerroak sortuz, eskariaren arabera.

Zein izan dira 2026-2027 ikasturtean eredu berriak sortzeko egon diren eskaerak, eta zer asmo du Hezkuntza Departamentuak eskaera horiei bidea eman eta lerro berriak sortzeko?

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

**11-25/POR-00251. Galdera, Iturrama, Doña Mayor eta Arroizko La Balsa ikastetxeetan bi urteko gelak ezartzearen gaineko asebetetze-txostenari buruzkoa****GALDERA ERRETIRATZEA**

2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak Iturrama, Doña Mayor eta Arroizko La Balsa ikastetxeetan bi urteko gelak ezartzearen gaineko asebetetze-txostenari buruz egindako

ahozko galdera erretiratu izana. Galdera 2025eko ekainaren 24ko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-25/PES-00336. Galdera, Valle del Queiles BHIari buruzkoa***PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, Valle del Queiles BHIari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 14. artikuluan ezar-tzen denaren babesean, honako galdera hau

aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan:

- Zer epe ezarri da etorkizuneko Valle del Queiles BHIa non kokatuko den erabakitzeko, eta zer denbora-aurreikuspen darabilzue hura abian jartzeko egin beharreko urratsei eta izapideei dagokienez?

- Nola eta noiz jakinaraziko zaie udalei departamentuak kokapenari buruz hartzen duen erabakia?

- Egin al du departamentuak kokapenari buruzko txostenik?

- Departamentua zer argudio eta irizpidetan oinarrituko da ikastetxea non kokatu erabakitzeko edo Queiles ibarreko herrietako bakoitzak ikastetxea bere herrian kokatzeko zer aukera duen ikus-teko?

- Udalek zer lursail eskaini dizkiote departamentuari ikastetxea kokatzeko?

Iruñean, 2025eko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

**11-25/PES-00337. Galdera, Barne Eraberritze eta Babeserako Plan Bereziari buruzko araudi orokorraren 103. artikuluari buruzkoa (A11 esparrua, Sarasate pasealekua)***JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, Barne Eraberritze eta Babeserako Plan Bereziari buruzko araudi orokorraren 103. artikuluari buruzkoa (A11 esparrua, Sarasate pasealekua).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako hau dio:

Iruñeko Udalaren Osoko Bilkurak 2001eko ekainaren 7an onetsi zuen Alde Zaharraren Barne Eraberritze eta Babeserako Plan Berezia, zeina 2001eko irailaren 7ko 109. NAO n argitaratu baitzen eta Vianako Printzea Erakundearen aldeko txostena jaso baitzuen bere garaian. Bada, planaren 103. artikulua (A11 esparrua, Sarasate pasealekua) honako hau dio:

Diseinu berrian integratuko dira orain erdiko nasaren alboetan dauden eskultura katalogatuak.

Plan bereziko katalogoaren 5. kapituluko ("Elementuak") 3. atalean ("Eraikuntzari lotu gabeko elementuak") honako elementu hauek jasotzen dira:

- Foruen monumentua.
- Errege-erreginen sei estatuak.

Elementu horien zerrendan, 2.2 apartatuan "Eraikuntzari lotu gabeko elementuak" honako hau jasotzen da:

#### 4. MONUMENTUAK

- 4.1 Foruen Monumentua Sarasate pasealekua Martínez de Ubago 1893
- 4.4 Errege-erreginen sei estatuak Sarasate pasealekua Olivieri eta Castro tailerra 1760

Argiago gera dadin, plan bereziko 11. planoan "Antolamendua, Zonakatzea, Hiri- eta Arkitektura-babesa" , grafiatuta agertzen dira Foruen Monumentua eta errege-erreginen sei eskulturak, "Eraikuntzari lotu gabeko elementu katalogatuak" testuarekin.

Horregatik, zalantzarik gabe, orain erdiko nasaren alboetan dauden eskultura katalogatu horiek errege-erreginen sei estatuak dira, eta, plan

bereziaren arabera, Sarasate pasealekuaren diseinu berrian txertatu behar dira.

Hala ere, Iruñeko Udala eskultura horiek lekualdatzen hasi da, proiektua onetsi du eta Sarasate pasealekua berrurbanizatzeko obrak lizitazioa atara ditu eskultura horiek sartu gabe. Vianako Printzea Erakundeak lekualdatze horren aldeko txostena egin du, eta, beraz, ez ditu bete plan bereziak esparru horri buruz ezarritakoa.

Horregatik guztiagatik,

Eskultura horiek Taconerara eramatea baimendu zuenean, Vianako Printzea Erakundeak konturatuta zegoen Alde Zaharraren Barne Eraberritze eta Babeserako Plan Bereziko Araudi Orokorren 103. artikulua (A11 esparrua, Sarasate pasealekua) ezartzen duenaren arabera diseinu berrian sartuko direla orain erdiko nasaren alboetan dauden eskultura katalogatuak?

Baimendu al duzu (edo baimenduko al duzu, baldin eta oraindik baimendu ez baduzu) Iruñeko Udalak onetsitako proiektua, eskultura horiek integratzen ez dituen?

Jarduketa horiek baimenduz gero, nola interpretatzen duzu 103. artikulua (A11 esparrua, Sarasate pasealekua), zeinak ezartzen baitu diseinu berrian integratuko direla orain erdiko nasaren alboetan dauden eskultura katalogatuak?

Baimentzen ez baduzu, zer neurri hartuko dituzue indarrean dagoen Alde Zaharraren Barne Eraberritze eta Babeserako Plan Berezi indarduna betetzeko?

Iruñean, 2025eko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

**11-25/PES-00338. Galdera, Bidean enpresari eginiko ordainketei buruzkoa***CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Bidean enpresari eginiko ordainketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zergatik atzeratu dira Osasun Departamentuak Bidean enpresari egin beharreko ordainketak?

Zenbat diru egiten dute guztira?

Konponduta al dago egoera hori? Nola?

Iruñean, 2025eko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

**11-25/PES-00339. Galdera, Bidean enpresaren jarduera abiaraztean izandako gorabeherari buruzkoa***CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Bidean enpresaren jarduera abiaraztean izandako gorabeherari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Administrazio Kontseiluak 2025eko ekainaren 17an jakinarazi zuenez, gorabeherak gertatu ziren Bidean enpresaren jardueraren hasierako egunean. Zer gorabehera izan ziren horiek?

Bereziki, zeintzuk dira pazienteen datuetan aurkitutako gabeziak? Zeren ondorio izan zirela uste da?

Zer ondorio eragin zituzten zerbitzuaren jardueran izandako gabezia horiek?

Zer egin da horiek konpontzeko?

Konponduta al daude guztiak?

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

## **11-25/PES-00340. Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan Erriberako pazientei neuroestimulatzailak emateari buruzkoa**

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan Erriberako pazientei neuroestimulatzailak emateari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

11-25/PES-00231 galderaren bidez jakin nahi zen ea Osasun Departamentuari zerk eragozten dion Tuterako Reina Sofía Ospitalean larruazalean zeharreko neuroestimulatzaila elektriko bat erabiltzeko prestakuntza eta bilketa zerbitzua gaitzea. Bada, Departamentuak, horri erantzunez, adierazi zuen neuroestimulatzaila elektriko bat erabiltzeko prestakuntza eta bilketa zerbitzua jada gaituta dagoela Tuterako Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Errehabilitazio Zerbitzuan.

Erantzun hori ikusita, entregatutako neuroestimulatzailen kopuruari buruzko informazioa eskatuta (11-25/PEI-00748), eta bidalitako informazioak berresten du ez dela neuroestimulatzailerik entregatu Tuterako Sofia Erreginarene Ospitalean, eta, hala ere, Erriberako 27 paziente Nafarroako Ospitale Unibertsitariora (Iruña) joan behar izan direla azken urtean, neuroestimulatzaila bat eman diezaieten.

Osasun Departamentuak nola esplikatzen du, haren arabera, Tuterako Sofia Erreginarene Ospitaleko Errehabilitazio Zerbitzuan larruazalean zeharreko neuroestimulatzaila elektrikoaren erabilerari buruzko bilketa eta prestakuntza gaituta egotea eta azken urtean Erriberako 27 paziente Nafarroako Ospitale Unibertsitariora (Iruña) joan behar izatea?

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

**11-25/PES-00341. Galdera, Belateko tuneletako obrei buruzkoa***MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Belateko tuneletako obrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoa-

ren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Belateko tuneletako obrak, ustelkeria eta gardentasuna direla-eta,

1) Nafarroako Jardunbide Egokien eta Ustelkeriaren aurkako Bulegoren txostena ikusita, zeinean irregulartasunak direla-eta esleipena baliogabetzat jotzen baita, Gobernuak zer egingen du kontratazio publikoen prozedurak arzteko?

2) Gogoan hartu al da instantzia judizialak edo auditoria independenteak inplikatzeko aukera ondare-kalterik egon ote zen argitzeko?

3) Nola bermatuko da etorkizuneko esleipen-prozesuek gardentasunaren eta parte-hartze publikoaren irizpideak betetzea eta kontratazio-mahaiek modu presentzialean edo deliberazio-mekanismo frogatuen bidez jardutea?

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Foru parlamentaria: M<sup>a</sup> Teresa Nosti Izquierdo

**11-25/PES-00342. Galdera, BSHren enpresa hornitzaileei buruzkoa***ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galdera, BSHren enpresa hornitzaileei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Ana Elizalde Urmeneta andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak zer bilera egin ditu BSH enpresaren hornitzaileekin, enpresa itxiko dela-eta?

Zer egoeratan geratzen dira BSHren enpresa hornitzaileak eta nola eragin die enpresa hori itxak?

Iruñean, 2024ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

## **11-25/PES-00343. Galdera, Iturrama, Doña Mayor eta Arroizko La Balsa ikastetxeetan bi urteko gelak ezartzearen gaineko asebetetze-txostenari buruzkoa**

*MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Iturrama, Doña Mayor eta Arroizko La Balsa ikastetxeetan bi urteko gelak ezartzearen gaineko asebetetze-txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuaren Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno jaunari, idatziz erantzun diezaion:

Hezkuntzako kontseilariak parlamentuan egini-ko agerraldi batean jakinarazi zuen txosten bat zegoela Iturramako ikastetxean, Doña Mayor ikastetxean eta Arroizko La Balsa ikastetxean 2 urtekoen gelak ezarri izanari buruzko asebetetze handia jasotzen zuena. Departamentuak zer balorazio orokor egiten du txosten horri dagokionez?

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

## **11-25/PES-00344. Galdera, iruzur fiskalaren aurkako borrokan 2023an azaleratu diren zorren egiazko diru-bilketari buruzkoa**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, iruzur fiskalaren aurkako borrokan 2023an azaleratu diren zorren egiazko diru-bilketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak Ekonomia eta Ogasuneko Departamentuari egindako honako galdera hauek aurkezten dizkio Mahaiari, idatziz erantzun diezazkion:

Ekainaren 7an, Nafarroako Foru Ogasunak Iruzur Fiskalaren aurkako Borrokarako Batzordean aurkeztu zituen Zerga Kontrolerako 2023ko Planaren emaitzak; bertan jakinarazi zenez, zerga-kontrolerako jarduketari esker 274.996.538 euro azaleratu ziren, 2022an baino % 43 gehiago.

Galdera hauei idatziz erantzutea eskatzen dut:

1.- 274 milioi euro horietatik, zeintzuk kobratu edo sartu dira egiaz Nafarroako Ogasunean?

2.- Zehazki, 2024ko ekainaren 7an jakinarazi ziren BEZaren eta erantzukizun zibilaren arloko bi jarduketari dagokienez (100 eta 50 milioi euro, hurrenez hurren), zer zenbateko kobratu da egiaz?

3.- Bi jarduketa horiek direla-eta:

- Subjektu pasiboek errekurritu al zituzten?
- Errekurritu ala atzeratu egin ziren? Hala izan bazen, exijitu al zen abal edo bermerik aurkeztea?
- Gertakari horietako bat ere gertatu ez bada, zorra ordainarazpen-bidez kudeatzera igaro al da?

Ordainarazpen-bidera igaro bazen, zenbat enbargo eta zer enbargo-mota egin dira eta zein izan da emaitza?

– Egin al da erantzukizuna deribatzekeo jarduketarik?

– Aurrekotik ezerk ere ez badu emaitzarik ekarri, bi zor horiek zordun handien zerrendan sartuko al dira?

Iruñean, 2025eko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## 11-25/PES-00345. Galdera, gradu amaierako lanak eta tesiak euskaraz egitea bultzatzeko neurriei buruzkoa

### OIHANA GALLO SAN ROMÁN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihana Gallo San Román andreak egindako galdera, gradu amaierako lanak eta tesiak euskaraz egitea bultzatzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Oihana Gallo San Roman andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa

Digitaleko Departamentuari eskatzen dio honako galdera hauei erantzun diezaien.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko 2021-2024 aldirako Euskarazko Ikasketen Plan Gidariaren helburuetako bat honakoa da:

Ikasketa Amaierako Lanak eta tesiak euskaraz egin daitezzen bultzatzea.

– Ze neurri hartu dira helburu hau betetzeko? Eta zein izan da emaitza?

– Nafarroako Gobernuak banatzen dituen beketan ba dago euskarazko bekontzako diru laguntza berariazkorik?

– Erantzuna ezezko bada, zein da Nafarroako Gobernuak doktoretza-aurreko programetarako banatzen dituen laguntzetan ikerketa euskaraz egiteko diru laguntzarik ez egotearen arrazoia? Aurreikuspenik badago hurrengo urteetan egoera hori zuzentzeko?

Iruñean, 2025eko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Oihana Gallo San Roman



Zertan da Etxebizitzaren Behatokia sortzeko prozesua?

Gobernuak zer egutegi darabil gogoan behatokia egiaz abian jartzeko?

Zer giza baliabide eta baliabide material jarri nahi dira behatokiaren funtzionamendurako?

Lehendik dauden beste behatoki edo erakunde batzuekiko zer koordinazio-mekanismo aurreikusten dira?

Iruñean, 2025eko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

---

## **Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 100/2025 ebazpena, 2025eko irailaren 29koa, zeinaren bidez 11-25/PES-00302 espediente-zenbakia duen idatzizko galdera Nafarroako Gobernuari helarazten baitzaio idatziz erantzun dezan**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Ángel Ansa Echegaray jaunak eskatu du Nafarroako Gobernuari eska dakion idatziz erantzun beharreko galderari erantzun diezaion, hura erantzuteko epea igaro baita Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Nafarroako Gobernuak Erregelamenduko 215.1 artikuluen arabera foru parlamentariet eginiko galderei erantzuteko duen epea igaro baita,

EBATZI DUT:

1. Nafarroako Gobernuak premiatzea 15 eguneko epean erantzun dezan Legebiltzar honen Mahaiak izapidetutako galdera, Aire Bidezko Konektibitatearen Mahaiari buruzkoa (11-25/PES-00302).

2. Ebazpen hau Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Ángel Ansa Echegaray jaunari jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 102/2025 ebazpena, 2025eko irailaren 30ekoa, zeinaren bidez 11-25/PES-00298 espediente-zenbakia duen idatzizko galdera Nafarroako Gobernuari helarazten baitzaio idatziz erantzun dezan**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Mikel Zabaleta Aramendia jaunak eskatu du Nafarroako Gobernuari eska dakion idatziz erantzun beharreko galderari erantzun diezaion, hura erantzuteko epea igaro baita Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Nafarroako Gobernuak Erregelamenduko 215.1 artikulua araberatu foru parlamentariet eginiko galderei erantzuteko duen epea igaro baita,

**EBATZI DUT:**

1. Nafarroako Gobernua premiatzea 15 eguneko epean erantzun dezan Legebiltzar honen Mahaiak izapidetutako galdera, Nafarroako bide publikoak eta ibilbide berdeak arautzeari buruzkoa (11-25/PES-00298).

2. Ebazpen hau EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Mikel Zabaleta Aramendia jaunari jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

